

Tubal Nafarroara etorri zenekoa

1628an, García de Góngora goitizena zeraman idazle batek *Historia apologetikoa* argitaratu zuen, Nafarroara tubalismoaren mitoa hedatuz. Aragoik eta Gaztelak nafar erresumaren gainean zituzten ustezko eskubideei aurre egitea zen asmoa, eta ez, egungo navarrismoak defendatzen duen gisan, Nafarroako eta Gaztelako batasunari gorazarre egitea.

| SANTI LEONÉ |




Historia biblikoaren arabera Tubal Jafeten bosgarren semea zen, eta Noeren biloba. Irudian, Jan Brueghel *Gaztea*-ren margolanean (XVII. mendea), animaliak ontzira sartzeko uholde nagusiaren aurretik.

XVI. MENDEAN, Nafarroan ez zen erresumako historiarik inprimatu. Idatzi bai, batzuk idatzi ziren, batez ere mendearen lehen berrogei urteetan: hortxe ditugu Juan de Jasoren eta Sancho de Alvearren liburuak, biak *Genealogía de los Reyes*

de Navarra izenburukoak, edo Diego Ramirez Avalos de la Piscinaren *Crónica de los muy excelentes Reyes de Navarra*; mendearen bigarren erdian, Reta lizentziatuaren *Sumaria relación de los apellidos* dugu aipatu beharra. Bakar bat ere ez zen

inprimatua izan: guziak eskuizkribu forman hedatu ziren. XVI. mendean inprimatu zen Nafarroako historiarik inportanteena gipuzkoar batek idatzi zuen, Esteban de Garibaik hain zuzen ere, 1571n kaleraturiko bere *Compendio Historial*-en.



Ezkerrean, gotizismoa defendatzen duen XVI. mendeko lana. Eskuinean García de Góngoraren *Historia apologetikoa*-ren azala.

XVII. mendean, berriz, Nafarroako historia franko dugu: Prudencio de Sandovalen *Iruñeko aphezpikuen katalogo*-tik (1614) Jose de Moret erresumako kronikagile ofizialaren lan oparoraino, Pedro de Agramont *Historia de Navarra* mardula atzendu gabe —azken hau ere inprimatu gabe gelditu zen arren—. Eta, segur aski, XVII. mendeko nafar historiografiaren berritze hartan, toki berezia merezi du *Nafarroako historia apologetikoa*. 1628an Garcia de Góngora y Torreblanca gotizena erabiltzen zuen egile batek argitaratua, mendebaldeko probintzietan hedatuak ziren mito batzuk (tubalismoa, kantabrismoa) ekarri zituen Nafarroara, eta konkista azaltzeko —edo, hobeki erranda, hura saihesteko— eta Gaztelan eta Aragoian zabaltzen ari ziren teoria batzuei buru egiteko, estrategia berria proposatu zuen. Bitxia bada ere, zenbaitek *navarrismo*aren aitzindari bat ikusi dute Nafarroa euskal historiografiaren eremuan kokatzen duen Garcia de Góngoraren lan honetan.

“Jende barbaro eta ezezaguna”: euskaldunak eta godoak

Garcia de Góngoraren *Historia apologetikoa* liburu militantea da, polemikoa, inguruko historialari guzuekin eztabaidan aritzen dena. Liburuaren onspenean, Pedro de Monreal lizentziatuak erraten zuen “erresuma honetan gertatua zela zenbait adua-

netan gertatzen dena, ez baitute zaindaririk, haien eskubideak ebasen dizkietela”; eta galdutako eskubide horiek aldarrikatzeko idatzi zuen bere liburua Garcia de Góngorak. Eta hori egiteko, ordura arte Bizkaian eta Gipuzkoan hedatuak ziren zenbait teoria historiko ekarri zituen Nafarroara; horietatik bat interesatzen zaigu orain: tubalismoa.

Historia apologetikoa lan militantea da, eta pixka bat sakonduz gero, ikusten ahal dugu urrun dagoela, zinez urrun, gaurko navarrismotik

Espainiako historiografian, hainbat idazlek Erdi Aroan defendatua zuten penintsulako lehen biztanleak Tubalekin zirela etorriak, Babelgo dorreko hizkuntzen nahasmena gertatutakoan. Tubal, Bibliako kontakizunean, Jafeten bosgarren semea zen, eta Noeren biloba. XVI. mendean, Iberiar penintsulara lehen leinuak Tubalek ekarriak zirelako tradizioari bertze osagai bat gaineratu zioten Juan Martinez de Zaldibia edo Esteban de Garibai bezalako historialari gipuzkoarrek: Tubalek euskara ekarri zuen, eta hizkuntza horrek frogatzen du euskaldunak direla Espainiako biztan-

lerik antzinakoenak. XVII. mendean, Garcia de Góngorak Nafarroara aldatu zuen teoria hori: “Bi hizkuntza mintzatzen dira erresuma honetan”, dio Garcia de Góngorak, “euskara eta erromantzea, baina euskara da bertan jatorrizkoa eta lehena, Tubal patriarka erresumaren sortzaileak ekarri baitzuen”.

Tubalismoa ez zen soilik jakintsu batzuen josteta. Ondorio politikoak ere bazituen. Nafarrak Tubalen oinordekoak zirela aldarrikatzen zuelarik, Garcia de Góngora erresumaren antzinakotasuna aldarrikatzen ari zen, eta, bidenabar, zilegitasuna kendu nahi zien Gaztelan eta Aragoian 1512ko konkista justifikatzen zuten teoriari.

Gaztelan, XVII. mendean, indarra hartzen ari zen gotizismoa izeneko azalpen historiko zaharra. Erdi Aroan osatua, teoria horren arabera, godoek, erromatarrek lekutu ondoren, historian estreinako aldiz Espainia osoa batzea lortu zuten. Musulmanen konkistaren ondorioz jatorrizko batasun gotiko hura galduta, soilik Gaztelako errege-erreginei zegokien penintsulako lurralde guztiak birkonkistatzeko eskubidea, errege-erregina gaztelarrak baitziren godoen egiazko oinordeko bakarrak. Musulmanen kontrako borrokan Nafarroako edota Aragoiko erresumen eginahala eta laguntza eskertzekoak ziren, baina godoen herentzia Gaztelako errege-erreginei zegokien. Beraz, Fernando katolikoak ez zuen Nafarroa konkistatu, baizik eta, Gaztelako errege zen heinean, zegokion godoen ondasun haren parte bat berreskuratu.

Bertze alde batetik, Aragoiko historialariek, aspalditik, bertzelako narrazio historiko bat zuten osatua, Sobrarbeko erresumarena. Narrazio horretan, musulmanak etorri ondoren, kristauak Sobrarbeko erresuma sortu zuten Pirinioetan, eta, denboraren poderioz, erresuma horretatik Aragoi eta Nafarroa sortuko ziren, baina hau beti haren menpe egona zen, eta jatorrizko Sobrarbeko erresuma mitiko horren parte zen. Nafarroako konkistaz den bezainbatean, Gaztelako gotizismoa eta Aragoiko teoria hau antzeko ondorioetara iristen ziren: Fernando

katolikoak ez zuen Nafarroa konkistatu, baizik eta, Aragoiko errege zen neurrian, Sobrarbeko erresumak galdua zuen zati bat birkonkistatu, Sobrarbeko errege-erreginen herentzia berriz ere bereganatu.

XVII. mendean boladan ziren bi teoria horien aitzinean, tubalismoak bi osagai zituen nafar historialariak erakartzeko. Alde batetik, erresumari antzinakotasun berria ematen zion: bazitekeen Sobrarbeko erresuma zaharra izatea, baina ez euskal jendea –Tubalengandik heldu baitzen– baino zaharra. Eta, bertzetik, euskaldunen jatorritasuna ziurtatzen zuen: euskaldunak, godoak ez bezala, penintsulako jatorrizko biztanleak ziren. Tubalen leinukoen ondoan, godoak, azken batean, “jende barbaroa zen, eta ezezaguna”, “Gotia probintziatik” etorritako “jende arrotza”. Antzinakotasunari inportantzia handia ematen zion kultura batean, Aragoiko eta Gaztelako ustezko eskubideak berri-berriak ziren, jatorria Tubalengan zuen herriaren aldean.

Borondatezko errenditzea

Berriki arte, uste izan dugu García de Góngora goitzenaren gibelean Juan de Sada izeneko idazle bat zegoela. Azken urteetan, Isabel Ostolazak, gaia ikertu eta gero, proposatu du segur aski *Historia apologetikoa* talde lana dela. Ekarpen interesgarri horrekin batera, García de Góngoraren liburua *navarrismo* aldeira lerratzen saiatu da, gaurko zenbait jarreraren aitzindari bihurtzeraino. *Historia apologetikoan*, egileak edo egileek defendatu baitzuten konkista ez zela, berez, konkista: nafarrek

borondatez eman zuten amore, eta, horren ondorioz, dinastia aldaketa gertatu zen Nafarroan. Ostolazaren ustez, interpretazio horrek “gaurko *navarrismo* foruzalearendako oinarri den ildo historiografiko jakin bati hasiera eman zion”. Ostolazak aurrekariak bilatu nahi izan dizkio franko berria den interpretazio historiografiko bati, hari duintasuna emateko asmoz. García de Góngoraren interpretazioa bere testuingurura eramanez gero, ordea, ondorioa nahiko diferentea da.

XVI, XVII eta XVIII. mendeetan, historialari nafarrek, oro har, ez zuten onartu nahi izan konkista konkista izan zela. Konkistak errege-erregina berriei eskubidea emanen ziekeen foruak deuseztatzeko eta Nafarroan nahi zuketzen gobernu forma ezartzeko. Eta hain zuzen ere hori saihesteko, erresumako historialariak bertzelako azalpenak asmatzen ibili ziren: errestaurazioa, XVI. mendean; zuzenbidearen kontrako okupazioa, XVIII. mendean –Francisco Aleson kronistaren eskutik–. XVII. mendean, Gaztelatik eta Aragoitik errestaurazio arriskutsu batzuk proposatzen ari zirela, García de Góngorak borondatez amore ematearena proposatu zuen. Konkistaren izaera ukatzearen ondorioa argi zegoen: errege-erregina berriek “aitzineko errege-erreginek bezala, nafarren foru eta askatasuna errespetatu behar dituzte”. *Historia apologetikoaren*, tubalismoaz ari zela edo konkistaz ari zela, diskurtso politikoa baitzen, helburu politikoa zituen. Asmoa ez zen, Ostolazak uste duen bezala, Nafarroaren eta Gaztelaren arteko batasunari gorazarre egitea; asmoa



Esteban de Garibairen 1868ko grabatua. Tubalen mitoa zabaltzen lehenengotako kronista izan zen.

zen, batetik, Gaztelaren eta Aragoiren ikuspuntutik konkista justifika zezaketen narrazio historikoei buru egitea, eta, bertzetik, konkista horretatik etor zitezkeen ondorio txar batzuk saihesteko argudio historikoen eskaintzea.

Erran bezala, García de Góngora y Torrelancaren *Historia apologetikoa* liburu polemikoa izan zen, eta lan militantea. Eta testuan pixka bat sakonduz gero, militantzia horren nondik norakoak ikusten ahal ditugu. Eta azaleko antzekotasunak antzekotasun, urrun dago, zinez urrun, gaurko *navarrismotik*. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia